

ERRIALDE GUZTIEN EDESTIA

2.– EJIPTO (K.A. 5000-1200)

Antxiñako denporetan gaur Sahara basamortua dana zugazti eder bat zan baiña astiro-astiro legortu egin zan eta ango jentea Nilo ibaiaren ondora urreratu eta ibai onen inguruak ez ziran zabalak.

Lan aundiak egin bear izan ebezan: Basoak garbitu, bakar-lekuetan baratzak sortu, etxeak ugari egin, laztozko etxeak.

Inguru orretan geroago ta jente geiago batzen zan eta Nilo ibaiari esker lurra oso emonkorra biurtu zan lanari esker, baiña nekazaritzarako langille larregi egoan eta uri aundietara batu ziran beste lanbide batzuk asmatzeko: jantziak egin, egur-lanak ikasi, lanerako tresnak gertatu eta dana azokan saltzeko.

Ikusten dan lez, bizi-modu barriak burubide eta giza-lege barriak sortzen ebazan. Orregaitik, gizon azkar bat autatu eben buruzagi, Faraon, inguruan bere agintari taldea eta abadeak ebazala. Oneik ez ziran bizi nekazaritzatik eta ez esku-lanetatik edo salerosketatik, erriak ordaindu bear ebazan zergetatik baiño. Eta jenteak aunditzat artu egiezan, etxerik ederrenetan bizi izaten asi ziran.

Faraon'em agintaritza bere semeengana igaroko zan.

Agintari aundi onen entzutea eriotzeagaz amaitzerik ez eben nai eta ortxe dago piramideen sustraia, oroigarri izango ziran illobiak dira.

Piramideetan Faron bakoitxak bere aberastasunak pillatzen ebazan Faraon'en gorpuagaz batera.

Faraon'en agintea aunditu eta lurralde barrietara zabaldu zan eta orretarako gudak egin bear izan ziran eta geienak egin eta irabazi be egin ebezan, Nilo gora niaz itxaso-barrurantz.

Guda irabazten ebanean, etsaiak morroi biurtzen ebazan eta lanik gogorrenak egitera beartuak izaten ziran. Oneik izan ziran piramideen egillerik geienak eta eundak urteen barruan jauretxe edo tenplu arrigarriak be eurak eben ebezan. Gaiñera menpean egozan errietatik zerga aundiak eskuratzen ebazan Faraon'ek.

Jainkoen laguntza irabazteko egiten ziran jauretxe eder oneik eta orralan ziur egozan osasuna, ondasunak eta zorion bete beti izango zirala Ejipto'n.

Euren Jainkoak eguzkia, Nilo ibaia bera eta beste asko ziran eta euren irudiak agertzen dauskuez, erdi-gizon-erdi-pizti biurtuta. Menperatzen ebezan errietako jainkoak be Faraon'en laguntzaille biurtzen ziran.

Luzaro ibilli zan Ejipto Faraon'en menpean eta abadeen esanak egiten.

Ejiptoarrak trebeak ziran arria lantzen, izardia ezagutzen, etxeak egiten, eta izar-mapa arrigarriak egiten.

Idazteko "papiroa" artu eben, ziakez eginda, eta ortik etorria da gure ingi edo papel izena. Garrantzi aundikoak izan ziran beti eskribauak eta oneik euren irudi ederretan idazten agertzen dira.

Margolaritzan be trebeak ziran oialetan naiz arrietan. Euna edo telea egiten be onak ziran eta urrea atera, landu eta arri-bitxiz edertzen be esku onekoak.

Baiña geienak txabola-zuloetan bizi ziran eta an egiten ebezan sukaldari-lanak egun-sentian asi eta gabera artea. Eta nekatuta amaitzen eben eguna. Bizi-modu tristea alal-koa. Ez zekien mundu guztiko nagusi izango ziranik.

Gaur Alkairo'ko museoan gauza asko eta arrigarriak ikusi daitezke. Aurretik ikusgarriak dira piramideak eta euren artean dagoan esfinje ederra, baiña piramideen barruan aurkitutako edertasunak agiri dira museoan, benetan ikusgarriak.

Ez zan Ejipto erri bakarra, aldi berean edo laster beste erri asko sortu ziran sortalde arrigarri aretan, erri bakoitza bere erakunde eta legeakaz eta bere lanbideakaz, bere gudakaz eta zergakaz, bizi-modu bereiziagaz. Orreri zibilizazio edo jendakuntza deritxogu. Guztiak daukez euren legeak eta jaurketa.

Guztiak dauke, baita, euren izkuntza, euren idazkera, euren eresa, margolaritza eta kontu edo ipuiñak eta euren edertia.

Guztiak alegindu ziran euren lana, euren izar-ezagutzea, eta euren aizeen jokera bereiziak, urte-giroak, zenbaki edo neurketak, euren landarak ezagutza emoteko bideak agertzen, baiña bata besteagandik ondo be ondo bereizten ziran.

Gorabeera aundiak be izaten ebezan guztiak: egualdi epelak eta beroegiak, euri egokiak eta etxeak eroaten eutsezan uriolak... eta guzti ori nondik etorren jakin gura bideratzeko? Korapillo guzti oneik askatzeko bide lez, errialde guztiak erlejiñora jo eben eta or sortu zan izaki bat eta batzuk Jainkoa edo jainkoak.

Eta guzti ori alkartuta erriaren jakintza edo kultura da.

MARGO EDERDUN ENTZIKLOPEDIA'TIK Olazar'tar Martin'ek moldatua



K.a. 2000: Inditarra guda galdu: lges.